

Eibarko Udalak Arduinoko ikastaro bat antolatu du sorkuntzatik EKINera pasatzeko asmoz, buruan dituzun ideiak aurrera eramaten laguntzeko

**Tramitatzailea:** Garapen ekonomikoa, enplegu eta berrikuntza Saila.

**Hartzaileak:** +16 urtetik gorakoentzat

**Ikastaroaren prezioa:**

**45€** ( Eibarren erroldatuak)

**65€** ( Eibartik kanpokoak)

**Ikastaroaren ordainketa:** Matrikula ordainketa bakar batean kobratuko da, erreziboa helbideratuta.

**Eskaera egiteko tokia:**

PEGORA, Herritarren Zerbitzurako Bulegoa.

**Nork emango du:** DOPLAY

**Non:** INDIANOKUA Gaztelekua

**Datak:**

Abenduak 3,10 eta 17

**Ordutegia:** 09:00etatik 13:00etara.

**Ikasle kopurua:** gutxienez 8 ikasle, eta gehienez 20 ikasle.

**Eskaera egiteko epea:** azaroaren 18tik 28ra.

## Aurkeztu beharreko agiriak:

- **“IKASTAROAK: MATRIKULA ORRIA”** izeneko inprimakia behar bezala beteta (PEGORAn eta udal web orrian, [www.eibar.eus/kultura](http://www.eibar.eus/kultura) eskuragarri).
- Eskatzailearen NANaren edo balio bereko dokumentu baten kopia.

## Kudeaketa arauak:

Izena eman duten pertsonen kopurua ez bada heltzen ikastaroa emateko ezarritako gutxienerako ikasle-kopurura, ez da ikastarorik egingo. Abisua udalaren web orrian emango da ([www.eibar.eus/kultura](http://www.eibar.eus/kultura)), **2016ko azaroaren 29an**.

Izena eman duten pertsonen kopuruak ezarritako gutxienerako ikasle-kopurua gainditzen badu eta ezarritako gehienerako ikasle-kopurutik gorakoa ez bada, matrikula guztiak onartuko dira.

Matrikularako izena eman dutenen kopurua ezarritako gehienerako ikasle-kopurutik gorakoa bada, ikasleen aukeraketa zozketa bidez egingo da. **Zozketa Portalean egingo da**. Hona hemen zozketa-eguna eta ordua: **2016ko azaroaren 29an 10:00etan**. Zozketa era honetan egingo da:

Zozketa egin aurretik ikastarorako izena eman duten pertsona guztiekin zerrenda bat egiten da alfabetoaren arabera ordenatuta; bakoitzari zenbaki bat emango zaio.

Zaku baten sartuko dira zenbaki guztiak eta zenbaki bakar bat ateratzen da.

Aukeratuko diren pertsonak zenbaki horretatik hasita elkarren hurreneko ondoren datozenak izango dira, plaza guztiak bete arte.

Onartu diren pertsonen izenekin zerrenda bat egingo da. Zerrenda hori PEGORAn eta udalaren web-gunean egongo da **2016ko azaroaren 29an, 12:00etatik** aurrera. Zerrenda hori argitara ematen den unean sortzen da matrikularen zenbatekoa ordaintzeko obligazioa. Ikastaroa utzi edo ikastaroan baja ematen duen pertsonak ez du izango matrikularen zati proportzionala jasotzeko eskubiderik.

Informazio gehiago: 943 708 451 telefonoan